

**ZOR-FUNTS BAT ERATZEKO ETA KUDEATZEKO SOZIJETATE KUDEATZAILEA  
HAUTATZEKO PROZESUA ARAUTZEA ETA OINARRI TEKNIKOAK EZARTZEA**

**AURKIBIDEA**

<b>1. SARRERA ETA HELBURU ESTRATEGIKOA</b>	3
<b>2. HAUTAKETA-PROZESUAREN XEDEA ETA FUNTSEZKO PRINTZPIOAK</b>	4
<b>3. FUNTSAK EZINBESTEAN BETE BEHARREKOAK</b>	5
<b>4. HAUTAKETA-PROZESUA</b>	6
<b>4.1. ONARPEN-FASEA</b>	7
4.1.1. Onarpen-betekizunak	7
4.1.2. Aurkezteko epea	9
4.1.3. Zuzenketak	9
4.1.4. Hautagaitzak ez onartzea	9
<b>4.2. BALIOESPEN- ETA HAUTAKETA-FASEA</b>	10
4.2.1. Gutxienerako puntuazioaren atalasea	10
4.2.2. Balioeste- eta haztatze-irizpideak	10
4.2.3. Informazio eta dokumentazio gehigarriak	15
4.2.4. Berdinketa hausteko irizpideak	15
4.2.5. Balioeste- eta haztatze-epea	16
4.2.6. Hautagaia hautatzea	16
<b>4.3. FORMALIZAZIO-FASEAK</b>	17
4.3.1. Funtsa sortu eta abiaraztea. Lehen itxieraren gutxienerako zenbatekoa	17
4.3.2. Ez-betetzea	18
<b>5. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA</b>	18
<b>5.1. «A» GUTUN-AZALA: ONARPEN-FASEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA.</b>	18
<b>5.2. «B» GUTUN-AZALA: BALIOESPEN- ETA HAUTAKETA-FASEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA.</b>	20
<b>6. ENTITATE KUDEATZAILEREN BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK</b>	21
<b>6.1. Funtzaren inbertsio-politiken gaineko betebeharrak eta konpromisoak:</b>	21

<b>6.2. Jasangarritasunari lotutako betebeharrak eta konpromisoak, baliabideen erabilera eraginkorra eta ekonomia zirkularra:</b>	22
<b>6.3. Kudeaketa- eta merkaturatze-jarduketetarako betebeharrak eta konpromisoak:</b>	23
<b>6.4. Informazio- eta gardentasun-betebeharrak/konpromisoak:</b>	24
<b>6.5. Araudia betetzearen gaineko betebeharrak/konpromisoak</b>	24
<b>6.6. Gobernantza-egituraren gaineko betebeharrak eta konpromisoak</b>	25
<b>6.7. Lanarekin, gizarte-segurantzarekin eta lan-segurtasunarekin eta -osasunarekin lotutako betebeharrak eta konpromisoak</b>	25
<b>6.8. Kontratista eta hornitzaileekiko betebeharrak betetzeko betekizunak eta konpromisoak</b>	25
<b>6.9. Ingurumen-arloko betebeharrak eta konpromisoak</b>	26
<b>6.10. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko, gizarteratze eta laneratzearen arloko eta lehia babesteko araudiaren arloko betebeharrak eta konpromisoak</b>	26
<b>7. EZ-BETETZEAK ETA ZIGORRAK</b>	26
<b>7.1. Sozietate kudeatzaileak EAEn gutxieneko inbertsioa egiteko konpromisoaren gainean egindako ez-betetzeak eta horren ondoriozko zigorrak</b>	26
<b>7.2. Sozietate kudeatzaileak ez-betetzea kapitalak zuritzea prebenitzeko araudia</b>	27
<b>7.3. Sozietate kudeatzaileak hartutako konpromiso eta betebeharrak ez betetzea</b>	27
<b>8. PUBLIZITATEA ETA GARDENTASUNA</b>	27
<b>9. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.</b>	28
<b>9.1. Konfidentzialtasuna</b>	28
<b>9.2. Datu pertsonalen tratamendua</b>	28
<b>10. LEGE-ARAU BIDEA</b>	29

## ZOR-FUNTS BAT ERATZEKO ETA KUDEATZEKO SOZIETATE KUDEATZAILEA HAUTATZEKO PROZESUA ARAUTZEA ETA OINARRI TEKNIKOAK EZARTZEA

### 1. SARRERA ETA HELBURU ESTRATEGIKOA

Eusko Jaurlaritza, Finantzen Euskal Institutuaren bitartez (aurrerantzean “FEI”) eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitate nagusien (aurrerantzean “BGAE”) lankidetzazko estrategikoa izanda, Euskadiren ekoizpen-eraldaketarako zor-funtsa (aurrerantzean “funtsa”) sortzeko sustatze-lanetan dihardu.

Funtsean egiten den partaidetza publikoa INDARTUZ KAPITALA SA sozietate publikoaren bitartez bideratzen da (aurrerantzean, “INDARTUZ”), zeina FEIk eratutako ekimena baita, lankidetzazko publiko-pribatua indartzera eta Euskadin inbertsio eraldatzaileak sustatzera bideratua.

Publizitate, lehia, berdintasun eta gardentasunaren printzipioekin bat eginda, INDARTUZek xedapen arautzaile hauek ezartzen ditu (aurrerantzean “oinarriak”), funtsa sortzeko eta kudeatzeko sozietate kudeatzailea ebaluatzeko eta hautatzeko prozesuari begira. Oinarriotan araututako ebaluazio- eta hautaketa-prozesuari aurrerantzean “prozesua” deituko zaio.

Oinarriek arautuko dute berariazko prozesua, eta kontratazio publikoaren araudiaren aplikazio-eremutik kanpo egongo da. Ezingo da inolaz ere ulertu oinarriek edo prozesuak FEIren edo INDARTUZen inbertsio-konpromisoa dakartenik. Oinarriok argitaratzeak ez du inolaz ere esan nahi INDARTUZek edo FEIk konpromisorik dutenik hautagaien alde edo funtsaren alde ekarpenik egiteko.

Era berean, FEIk edo INDARTUZek edozein momentutan eten, bertan behera utzi edo aldatu ahal izango dute prozesua, edozein arrazoiengatik, eta zehazki baina ez xehe-xehe, arrazoi ekonomikoengatik edo aurrekontu-erabilgarritasunagatik, eta horrek ez du konpentsazio-eskubiderik sortuko hautagaien edo hirugarren batzuen alde.

Zor pribatuaren inbertsio-bitarteko hau eratzeko, 100 milioi euroko gutxieneko ondare helburua ezarriko da. FEIk aingura-inbertsiogile modura jokatuko luke, aurreikusita INDARTUZek honelako ekarpen bat egin lezakeela: funtsaren ondareari egindako ekarpenen gutxienez % 25koa (25 M€) eta gehienez % 49koa (aurrerantzean “INDARTUZen ekarpena”). INDARTUZen ekarpena, halakorik bada, ekarpen-konpromisoaren gutuna edo antzeko agiriren bat sinatuta gauzatu da (oinarrien 6. apartatuarekin bat etorruta), merkaturatze-arriskua leuntzeko. Ekarpen honen bidez bi helburu lortu nahi

dira: finantzaketa malgua eskaintzea eta ozietate udeatzailearen (aurrerantzean, “Kudeatzailea”) palanka-efektua sustatzea, behar den gainerako kapitala erakartzeko, egokiro bermatuta, betiere, sustatutako kapital pribatuak ez duela gainditzen guztizko ondarearen %51.

Helburu nagusi modura, INDARTUZen kapital pribatuaren bultzatze ekimenarekin bat etorrira, prozesuaren arauak eta oinarri teknikoak eta prozesuaren beraren egiturak positiboki sustatu eta balioztatutako dute estatuko zein nazioarteko beste funts publiko edo pribatu batzuetako kapital osagarria mobilizatzeko hautatutako kudeaketa-gaitasuna.

Lehenik eta behin, prozesuari begira, kontuan hartu beharrekoa da funtserako proposatutako inbertsio-tesia, egitura eta jarduteko modua guztiz bat etorri behar dutela INDARTUZen estatutuekin (FEIren webgune ofizialaren gardentasunaren atalean eskuragarri).

Hautatutako Kudeatzailea arduratuko da funtsa egituratzeaz, funts osagarriak lortzeaz eta kudeaketa profesionala egiteaz, eta berariaz bermatuko du gardentasunez diharduela eta zorrotz betetzen dituela Europar Batasunaren eta Espainiako Gobernuaren arau-esparrua.

## 2. HAUTAKETA-PROZESUAREN XEDEA ETA FUNTSEZKO PRINTZIPIOAK

Hauxe da, nagusiki, oinarrien xedea:

- a) Funtsak, INDARTUZen ekarpena jasotzeko, ezinbestean bete behar dituen betekizunak ezartzea (oinarrien 3. apartatua) (aurrerantzean, **“funtsaren ezinbesteko betekizunak”**).
- b) Prozesua banatzen duten faseetan bete beharreko epeak, eskatutako agiriak eta gainerako baldintzak eta irizpideak deskribatzea. Zehazki, prozesuan parte hartzen duten entitateek (aurrerantzean, **“hautagaiak”**, eta haietako bakoitza **“hautagaia”**) bete behar dituzten gutxieneko betekizunak ezartzen dira (4.1. apartatua).
- c) Zehaztea zer konpromiso onartu behar dituen hautatutako Kudeatzaileak (6. apartatua) INDARTUZen ekarpena gauzatzeko. Konpromiso horiek ekarpen-konpromisoaren gutunean jasoko dira, behar diren egokitzapenak eginda.

Prozesua egokiro amaitzen dela bermatzeko, zorrotz beteko dira lehia askea, tratu-berdintasuna, diskriminazio-eza, gardentasuna, proportzionaltasuna,

osotasuna eta konfidentzialtasuna. Prozesuaren garapenak, aplikazioak, irismenak eta mugek oinarrietan xedatutakoari bakarrik men egingo diote.

### **3. FUNTSAK EZINBESTEAN BETE BEHARREKOAK**

Hona funtsak ezinbestean bete beharrekoak INDARTUZen ekarpena izateko:

- a. Funtsak, uneoro, nagusiki entitate pribatuen partaidetza eduki behar du; kontuan hartuta INDARTUZek ere parte hartuko duela (zuzenean edo zeharka) eta gerora ere beste entitate publiko batzuk ere batu daitezkeela partaide modura.
- b. Funtsa, nagusiki, honela inbertituko da: mailegu arruntak, partaidetzakoak, senior zorra, mendeko zorra, zor bihurtgarria —gutxienez hiru (3) urte dituzten enpresa pribatu ez-kotizatueta—.
- c. Funtsaren inbertsio-profila enpresa ertainak izango dira, proiektu errentagarriak dituzten heinean eta gaitasun nahikoa enpresa-proiektu sendo eta lurraldean ongi errotuak funtsatzeko.
- d. Funtsean egiten diren inbertsioak «*pari passu*» egingo dira, inbertsiogile publiko eta pribatuen artean.
- e. Enpresetako inbertsioek ez dute finantzaketarik jasoko, baldin eta:
  - i. Enpresek langilerik ez badute.
  - ii. Porrot-prozeduraren batean edo kaudimengabezia kolektiboko prozeduraren batean badaude, edo legean jasotako irizpideak betetzen badituzte porrot-prozedura zein kaudimengabezia-prozedura abiarazteko, hartzekodunen eskariz, bat etorrita bai maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuarekin —zeinak Konkurtso Legearen Testu Bategina onesten baitu—, bai aplikatzekoa zaion gainerako legediarekin, kontuan izanda beti oinarrietan azaldutako salbuespenak.
  - iii. Sektore hauetako batean edo gehiagotan parte hartzen badute: tabakoaren produktuak eta edari alkoholduen destilatuak; kasinoak, jokoak eta apustuak, finantza-bitartekaritzako enpresak, aseguruak

eta bakun-zerbitzuak (salbuespen dira inbertsio kolektiboko entitateak, funtsaren xedearekin bat etorrira), eta, armen eta munizioen ekoizpen eta merkataritza, ez badaude Europako Segurtasun Estrategiaren barruan.

- iv. Haien jarduerak ingurumenari kalte nabaria eragiten badiote (DNSH printzipioaren arabera) edo giza eskubideak urratzen badituzte.
- f. Funtsaren ondarearen % 75 gutxienez, Euskadin inbertituko da, apartatu honetan adierazitakoaren bat etorrira (aurrerantzean “Euskadin gutxienerako inbertsioa egiteko konpromisoa”): Euskadin inbertitzen dela joko da, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin (EAE) lotura estrategikoa duen enpresetan inbertitzen bada. Behar ez den murrizketarik ez gertatzeko eta inbertsio-aukera garrantzitsuak ahalik eta gehien bultzatzeko, lotura estrategikoa egintzat joko da baldin eta partaidetzapeko enpresak gutxienez egoera hauetakoren bat betetzen badu (zerrenda hau ez da xehe-xehea):
  - i. Errotze nagusia: EAEn egotea partaidetzapeko enpresaren erabakiak hartzeko zentro nagusia, jarduera nagusia edo egoitza sozial eta fiskala.
  - ii. EAEn duen eragina: Inbertsioak finantzatzen duen proiektuak, zuzenean edo zeharka, eragin nabarmena du EAeko enplegu kualifikatua, berrikuntza, ekoizpen-eraldaketa edo lehiakortasuna hobetzeko beste alderdi garrantzitsu batzuk sustatzeko.
  - iii. Filial estrategikoa: Enpresaren egoitza EAetik kanpo dago, baina haren filial edo zentro operatibo bat, balio estrategiko handikoa, EAEn dago, eta inbertsioaren helburua EAeko filialaren jarduera zuzenean bultzatzea eta indartzea da.

#### **4. HAUTAKETA-PROZESUA**

Prozesuak hiru fase izango ditu: onarpena, balioespen eta hautaketa, eta formalizazioa.

Oro har eta ondoren nola gauzatuko den gorabehera, honela garatuko da prozesua: (i) Onarpen-fasean, ezinbesteko gutxienerako betekizunak betetzen

diren egiaztatuko da (oinarrien 4.1.1 apartatuan daude jasota eta aurrerantzean “**onarpen-betekizun**” esango zaie) eta baztertzaila izango da; (ii) balioespen- eta hautaketa-fasean, berriz, proposamen onena zein den balioesteko zehaztutako irizpide teknikoak eta ekonomikoak aplikatuko dira eta sozietate kudeatzailea hautatuko da, eta (iii) formalizazio-fasean, azkenik, ekarpen-konpromisoaren gutuna izenpetu eta funtsa eratuko da.

#### **4.1. ONARPEN-FASEA**

Hautagaitzek **onarpen-betekizun** guztiak betetzen dituzten aztertuko da fase honetan.

##### 4.1.1. Onarpen-betekizunak

Onarpen-betekizun hauek bete beharko dituzten hautagaiak:

- a. Sozietate kudeatzaileak izan behar dute, eta Espainian sortuta egon edo EBko beste estatu batean, betiere Espainian arrisku-kapitaleko entitateak merkaturatzeko baimena izanda, aintzat hartuta azaroaren 12ko 22/2014 Legea –zeinak arrisku-kapitaleko erakundeak, inbertsio kolektiboko bestelako erakunde itxiak eta inbertsio kolektiboko erakunde itxien erakunde kudeatzaileak arautzen baititu– baita lege horrekin bat datorren edo hura garatu edo ordeztzen duen gainerako araudi guztia ere..
- b. Hautagaiak egiaztatu behar du sozietatearen kontrol efektiboa (Kontseiluko botoen gehiengoa edo kontrol operatiboa) akziodun pribatuek dutela, hartara bermatzeko inbertsio-erabakiak autonomiaz hartzen direla, funtsari ez dagozkion interes publikoen esku-hartzerik gabe.
- c. Hautagaia ez dago II. eranskinean ezarritako baztertze-egoeretako ezeinetan.
- d. Hautagaiak finantza-egoera sendoa du, eta, hala, berma dezake gaitasun operatiboa duela eta funtsa egokiro kudeatzeko ahalmena duela, eta, gainera:
  - i) Ondare garbi positiboa izango du itxitako azken bi (2) ekitaldietan.
  - ii) Ez du izango inolako desegite-kausarik ez eta enpresa-krisirik ere, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

- iii) Azken bi (2) ekitaldietako finantza-egoera auditatuak izango ditu, auditoretza-txostenaz gain.
  
- e. Hautagaiak gutxienez bost (5) urteko esperientzia izango du funtsen kudeaketan, edo, bestela, talde egoki bat izango du, egiaztatuta duena 10 urteko esperientzia duela funtsen kudeaketan edo horren pareko neurria eta munta duten inbertsio proiektuetan.
  
- f. Hautagaiak talde zuzendari eta teknikoa izango du; hura izango da funtsaren kudeatzaile nagusia, eta esperientzia profesional eta kualifikazio egokiak izango ditu ezarri zaizkion eginkizunak betetzeko (aurrerantzean **“talde kudeatzailea”**). Oinarrien ondorioetarako, talde kudeatzailearen kide izango dira administrazio-organismoan edo inbertsio-batzordean parte hartzen duten pertsona fisikoak, bai, halaber, hautagaiaren zuzendaritza-taldeko kideak, eta betekizun hauek izango ditu:
  - i) Talde Kudeatzailearen bi (2) kidek gutxienez —bazkide edo zuzendari kategoriakoak— behinik behin bost (5) urteko esperientzia oparoa izango dute sozietate kotizatu edo ez-kotizatuei maileguak emateko jardueran (mailegu bermatuak edo ez).
  
  - ii) Talde kudeatzaileko kide batek (1) gutxienez esperientzia izango du EAEn egindako inbertsioetan.
  
- g. Hautagaiak ez du izango interes materialeko inolako gatazkarik prozesuaren sustatzaileekin (FEI) edo funtsaren xedeekin: ez unean uneko gatazkarik, ez gatazka potentzialik, ez zuzenekorik, ez zeharkakorik. Interes materialeko gatazkatzat ulertzen da finantza-, transakzio- edo gobernantza-mailako edozein harreman, inbertsio-erabakien objektibotasuna ezbaian jar dezakeena.
  
- h. Hautagaia ezin da egon inolako zehapen-prozeduratan, eta ezin du eduki antzeko prozesuetan gaizki jarduteagatik aurrekaririk.
  
- i. Hautagaiak funtsa kudeatzeko gaitasun nahiko izango du. Hautagaiak, jada bere bitartekoak kudeatuz gero, funtsa modu eraginkor eta berezian kudeatzeko antolakuntza-egitura eta baliabideak bermatuko ditu, biderik eman gabe bere funtsekin baliabide-gatazkarik izateko edo funtzio-bikoizketarik gertatzeko.

- j. Hautagaiak eta/edo Kudeaketa-Taldeak Funtsaren ondare objektiboaren %lari dagokion gutxieneko ekarpena egiteko konpromisoa hartu beharko du. Baliozkotzat joko dira soilik Kudeaketa-Taldeak edo Hautagaiak, Kudeaketa-Taldeko kideek, edo haiek %100eko partaidetza duten bitarteko batek sinatutako konpromisoak.
- k. Hautagaiak kudeaketa arruntagatik kobratuko duen komisioa ezin da izan inbertsio-aldian konprometitutako kapitalaren urteko % 1,5 baino gehiago, ezta desinbertsio-aldiko kapital inbertitu biziaren urteko % 1,5 baino gehiago ere.
- l. Hautagaiak hautagaitzaren gaineko agiri guztiak aurkeztuta eduki behar ditu, Oinarrien I. eranskinetik IV.era ezarritakoaren arabera.

#### 4.1.2. Aurkezteko epea

Hautagaitzak aurkezteko epea hogeita (20) egun balioduneko<sup>1</sup> izango da, deialdi honen iragarkia [EHAA](#)n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera (2026ko apirilaren 20ra arte, barne).

#### 4.1.3. Zuzenketak

Hautagaiak aurkeztutako agirietan akatsak edo hutsak egonez gero eta FEIren arabera zuzentzeko modukoak izanez gero, bost (5) egun baliodunera arteko epea<sup>2</sup> emango da zuzenketak egiteko, hautagaiak FEIri inguruabar horren berri eman dionetik zenbatzen hasita.

#### 4.1.4. Hautagaitzak ez onartzea

Ez dira onartuko aurkezpen-epetik kanpo aurkezten diren hautagaitzak; era berean, hautagaitzak ez dira onartuko onarpen-betekizun guztiak betetzen ez badituzte —hala ez direlako aurkeztu beharrezkoak ziren egiaztapen-agiri guztiak, nola agiriek akats konponezinak dituztelako—.

---

<sup>1</sup> Prozesu honen ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoaren egutegi ofizialean balioduntzat ezarritakoak dira egun baliodunak (Bilbori dagokion egutegia).

<sup>2</sup> Zuzenketak aurkezteko azken eguneko 23:59 izango da epemuga.

## 4.2. BALIOESPEN- ETA HAUTAKETA-FASEA

Onarpen-fasea gainditzen duten hautagaitzak balioespen- eta hautaketa-fasera igaroko dira. Fase horretan, FEIk proposamen teknikoak eta ekonomikoak balioetsiko ditu, apartatu honetan ezarritako balioeste- eta haztatze-irizpideen arabera.

### 4.2.1. Gutxieneko puntuazioaren atalasea

Jarraian zehaztutako irizpideetan oinarrituta emango dira puntuak, kontuan hartuta, baina, gutxieneko atalaseak ezarriko direla, bai kategoria bakoitzean, bai modu globalean –hots, guztizko puntuazioaren gainean–, honela zehaztuta:

- a. Kategorietan ezarritako atalasea (% 25aren erregela):** Hautagaitzek gutxieneko betetze-maila egiaztatu beharko dute ebaluatzen den kategoria bakoitzean, dimentsio estrategiko bakar bat ere bazter ez uzteko.

Hautagaiak, bada, ebaluazio-kategoria bakoitzean ezarritako puntuazio osotik, gutxienez % 25eko puntuazioa lortu beharko du kategoria bakoitzean. Kategoriaren batean ez bada iristen % 25eko gutxieneko atalase horretara, hautagaitza hori prozesutik kanpo geratuko da automatikoki, eta ez zaio puntuazio osoa kalkulatu.

- b. Atalase orokorra (guztizkoaren % 50aren erregela):** Azken hautaketara igarotzeko, hautagaitzek deialdiko gehieneko puntuazio osoaren gutxienez % 50era iritsi beharko dute (100etik 50 puntu).

### 4.2.2. Balioeste- eta haztatze-irizpideak

Hauak dira kategorien araberrako balioeste- eta haztatze-irizpideen xehetasunak.

Balioeste- eta haztatze-irizpideak kategoria hauetan sailkatzen dira:

- A. Proposatutako lanerako plana eta metodologia: % 15eko haztapena. Funtsaren estrategia, bideragarritasuna, epe-proposamena eta arriskuen-kudeaketa baloratuko dira.

- i. Funtsaren gunea eta balio-proposamena: Hautagaiak zehatz adierazi beharko du nola helduko dion funtsak EAEko industria-ehunaren ekoizpen-eraldaketa bizkortzeko helburuari. Balio-proposamenak erakutsi beharko du finantzaketa-produktua tradizionalaren eskaintza osagarri garbia izango dela, bikoiztasunik eragin gabe eta transformazio- eta hazkuntza-proiektuetara bideratuta.
  - ii. Funtsaren ondare objektiboa eta eskualdeko inbertsioaren bideragarritasuna: Funtsaren ondare objektiboa hartuko da kontuan. Proposatutako kapitala inbertitzeko bideragarritasunaren azterketa bat egin beharko du hautagaiak. Horretarako, funtsaren tamaina egokiena proposatu eta justifikatu beharko du, EAerako gutxieneko inbertsioaren konpromisotik abiatuta.
  - iii. Epeen proposamena eta kapital-fluxua: Hautagaiak kronograma batean adierazi beharko du ea zenbat denbora (hilabeteetan) aurreikusten den bitarteko operatiboa prest edukitzeko, eta diruzaintza-plan bat aurkeztu beharko du urtez urte zehaztuta kapital-deien (capital calls) egutegia eta aurreikusitako inbertsio/ordainketa fluxua. Bereziki hartuko da aztergai ea bideragarria izango den arrazoizko epe batean ixtea eta eragingarria izaten ari den inbertsio-aldian kapitala hedatzeko jarduna.
  - iv. Arriskuak eta bermeak kudeatzeko estrategia: Hautagaiak sendotasuna erakutsi beharko du funtsaren inbertsioen arloko arriskuak identifikatzeko orduan eta arrisku horiek leuntzeko neurriak proposatzeko orduan. Hautagaiak argi eta garbi kokatu beharko du bere estrategia berme-eskemei dagokienez (adibidez, EIFa).
- B. Talde kudeatzailearen esperientzia eta Track Record-a: **% 40ko haztapena.**

- i. Esperientzia espezifikoa:
  - Alderdi hauek balioetsiko dira: inbertsioaren ziklo osoaren esperientzia (inbertsioa lortzea, inbertitzea, kudeatzea eta desinbertitzea), EAEko lehentasunezko eremuetako espezializazioa eta alde zehatzetik EAEn inbertsioak kudeatzen eta zuzentzen izandako esperientzia, bereziki zor pribatuko inbertsioetan izandako

esperientzia. Kudeatutako funtsen edo proiektuen zerrenda adierazgarri bat eskatuko da eta lortutako emaitzen laburpena ere bai.

- EAEko inbertsioetan: puntuazio erlatibo bat emango zaio, jasotako proposamenik onena oinarri hartuta, EAEn enpresa-ehuna garatzeko eta inbertsioak egiteko alde zuzeneko esperientzia zehatza egiaztatzen duten hautagaiei. Inbertsio horien adibide zehatz eta xeheak eskaini beharko dituzte, enpresak eta lortutako emaitzak ere identifikatuta.
  - Zor-inbertsioa funtsezko betekizuna bada ere, hautagaiek beste arlo orokor zein espezifiko batzuetan duten esperientzia ere balioetsiko da, betiere **Euskadi Eraldatuz 2030 planaren inbertsio lehenetsien ardatzekin** bat datozen heinean.
  - Aldeek, hurrengo urteetan, beren interesekin bat datozen inbertsio-egiturak diseinatu eta eratu ahal izango dituzte, eta kontuan hartuko dute sozietate kudeatzaile batek, zor-funtsaz gain, egitura horiek ere administratzeko aukera.
  - ii. Errentagarritasun- eta arrakasta-historia: Funtsen edo proiektuen kudeaketan arrakasta-historia izatea, egiaztatze modukoa emaitza argi eta neurgarrietan (adib. errentagarritasuna, irteera-multiploak eta abar).
  - iii. Lidergoaren arloko kualifikazioa eta esperientzia: Esleitutako taldean giltzarri diren kideen ibilbidea, lidergoa eta ezagutza espezifikoak. Era berean, lantaldeak aurretiaz elkarrekin lanean metatutako esperientzia ere balioetsiko da.
  - iv. Erreferentziak eta ospea: Aurreko bezeroek edo bazkideek emandako erreferentzien kalitatea eta sendotasuna, baita hautagaiak oro har merkatuan duen ospea. Bereziki balioetsiko dira EAerekin lotura duten alderdiak.
- C. Eragin geografikoa: **% 20ko haztapena**. EAEn duen inbertsio-konpromisoa, presentzia fisikoa eta talde-presentzia puntuatuko dira.
- i. EAEko pisu geografikoarekiko konpromisoa: EAEn inbertsio minimo bat metatzea (% 75) nahitaezkoa izango den arren, positiboki balioetsi eta puntuatuko da inbertsio-konpromiso minimo horretatik gorako inbertsioa jasotzea hautagaizaren proposamenean.

- ii. Tokiko operazio-presentzia eta taldea: EAeko lurraldean funtsera bideratutako konpromiso operatiboaren eta giza azpiegituraren sendotasuna balioetsiko da. Alderdi hauek puntuak jasoko dituzte: (i) hautagaia EAEn helbideratuta egotea, (ii) hautagaiak EAEn bulego fisiko eta operatibo bat izatea edo halako bulegoa izateko konpromiso loteslea hartzea eta/edo (iii) inbertsio-talde bat ezartzea, EAeko bulegoetan etengabe lan egingo duena, EAeko lurraldean baliabide-hornikuntzan eta administrazio eta zuzendaritzan egin beharreko kudeaketa-lanei begira.

D. Eraginarekiko eta jasangarritasunarekiko konpromisoa (ESG): % 5eko haztapena. Genero-berdintasuna kudeatzean eta sustatzean ESG irizpideak baliatzea balioetsiko da.

- i. ESG filosofia eta ikuspegia: Aintzat hartuko da ea hautagaiaren ikuspegia eta balioak bat datozen halako proiektuek gizartean, ingurumenean eta ekonomian izan beharreko eraginaren xedeekin, Euskadi Eraldatuz 2030 Planean zehaztutako hiru trantsizio nagusiak bizkortze aldera: energia-ingurumen arloko trantsizioa, trantsizio teknologiko-digitala eta trantsizio demografiko-soziala. Era berean, hautagaiak justifikatu beharko du aplikatzen dituela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko 2019/2088 (EB) Erregelamenduaren 8. eta 9. artikulua (finantza-zerbitzuen sektorean jasangarritasunari buruzko informazioa zabaltzeari buruzko erregelamendua berau).
- ii. ESG irizpideen integrazioa, neurketa eta eraginari buruzko txostena: Baloratuko da ingurumen, gizarte eta gobernantza arloko irizpideak (ESG) integratzeko politikak eta praktikak edukitzea eta inplementatzea kudeaketa-ereduan eta akordioa betetzeko moduan.
- iii. Genero berdintasuna taldean: Baloratuko da hautagaiaren lantaldean genero-berdintasuna sustatzea, bereziki erabakimen eta zuzendaritzako lanpostuetan. Hautagaiak talde giltzarriaren datuak aurkeztu beharko ditu sexuaren arabera xehakatuta, eta, beharrezkoa bada, beren berdintasun- eta kontziliazio-politika azaldu.

- E. Irizpide ekonomikoak eta inbertsio konpromisoak: % 15eko haztapena. Kudeaketa- eta arrakasta-komisioen proposamena puntuatuko da, baita inbertsio-konpromisoak ere, bai Hautagaiarenak, bai gainerako partaideenak, helburutzat hartuta funtsaren interesak gainerako partaideen interesekin bat etor daitezela.
- i. Kudeaketa komisio txikiena: Kudeaketa-komisio txikienei puntuazio hobea emango zaie; dena den, komisioa inoiz ez da izango % 1.5etik gorakoa, inbertsio-aldian konprometitutako kapitala edo desinbertsio-aldian desinbertitutako kapital bizia oinarritzat hartuta.
  - ii. Arrakasta-komisio txikiagoa eta funtsaren partaideen interesekin bat etorria: Arrakasta-komisio txikienak puntuazio hobea izango dute. Era berean, berariaz baloratuko da proposamenak zehaztea nola banatuko den arrakasta-komisioa hautagaiaren talde osoan –ez bakarrik bazkideen artean–. Pizgarrien eredu ekitatiboa lortzea da helburua, eredu horretan taldekideen inplikazioa, esperientzia eta erantzukizuna aintzat hartuta, funtsaren arrakasta profesional guztientzat izan dadin onuragarria, hartara taldearen errendimendua piztuko baita, talde kudeatzailearen interesak eta funtsaren partaideenak bat eginda. Hautagaiak arrakasta-komisio bat ezarriz gero, funtsa likidatzen den unean sortu eta ordainduko da, baldin eta aurrez ordaindu bazaizkie partaideei dagozkien zenbatekoak –alegia, haiek egindako ekarpenei itzulkinaren barne-tasa (itzulkinaren lehentasunezko tasa) ezartzeagatikozenbatekoak–.
  - iii. Hautagaiaren gutxieneko ekarpen handiena: Funtsaren ondare objektiboaren % 1 da eskatzen den gutxienekoa.
  - iv. Kapital potentzialaren trakzio-gaitasuna: Hautagaiak kapital potentzial eta ez-loteslea mobilizatzeko zenbateko gaitasuna duen puntuatuko da. Inbertsiogileen asmo-gutunen (Letters of Intent), interes-gutunen eta konpromiso ez-lotesleen (Soft Commitments) bidez egiaztatutako da kapitala. Eta INDARTUZ ekarpenaz bestelakoa izan behar du.
- F. Gobernantza eta komunikazioa: % 5eko haztapena. Proposatutako gobernu-egitura eta partaideentzako informazio-sistema ebaluatuko dira.

- i. Bitartekorako proposatutako gobernu-eta kontrol-egitura: Baloratuko da inbertsiogileek gobernantzan parte-hartze handiagoa izatea batzorde, organo ikuskatzaile, komunikazio eta abarren bidez.
- ii. Parte-hartzaileekiko komunikazio- eta informazio-sistemaren metodologia. Komunikazio xehearen maiztasuna eta irismena, adibideekin hornituta, beharrezkoa bada.

Horri dagokienez txostenen aldizkakotasuna eta irismena puntuatuko dira, eta berariaz baloratuko dira IV. Eranskinean zehaztutakoaren arabera eman beharreko gutxieneko informazioa neurtzeko metodologiaren eta haien gaineko txostenen kalitateari. Proposamenak erakutsi behar du gai dela adierazle horiek sendotasunez eta ikuskatu ahal izateko moduan neurtzeko eta komunikatzeko.

#### 4.2.3. Informazio eta dokumentazio gehigarriak.

Hautagaiek aurkeztutako dokumentazioa gorabehera –barnean direla proposamen teknikoak eta ekonomikoak– FEIk egokitzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu, eta aditu independenteen aholkularitza izan, beharrezko irizten badu.

FEIk, era berean, ahalmena izango du deialdi honetako balioeste- eta haztatze-irizpideak interpretatzeko, eta beharrezkotzat jotzen duen informazio eta dokumentazio guztia eskatu ahal izango die hautagaiei.

#### 4.2.4. Berdinketa hausteko irizpideak

Bi hautagaik edo gehiagok puntuazio bera lortzen badute guztira, berdinketa hausteko arau hauen arabera aukeratuko da hautagaia:

- i. Balioeste- eta haztatze-irizpideen C kategorian (eragin geografikoa) puntuazio handiena lortu duen hautagaia.
- ii. Kategoria horretan ere berdinketa egonez gero, balioeste- eta haztatze-irizpideen E kategorian (irizpide ekonomikoak eta inbertsio konpromisoak) puntuazio handiena lortu duen hautagaia.

- iii. Aurreko kategoria horietan berdinketa egonez gero, balioeste- eta haztatze-irizpideen A kategorian (metodologia eta proposatutako lan-plana) puntuazio handiena lortu duen hautagaia.
- iv. Azkenik, aurreko hiru kategoria horietan berdinketa egonez gero, balioeste- eta haztatze-irizpideen F kategorian (governantza eta komunikazioa) puntuazio handiena lortu duen hautagaia hautatuko da.

Bestalde, hautatutako hautagaiaren ostean puntuazio onena lortu duen hautagaia ordezeko izendatuko da, lehenik hautatutako hautagaiak izendapenari uko egingo balio ere ondoren zehaztuta datorren hautatze-akordioaren datatik hiru (3) hilabeteko epean. Dena dela, FEIk aukera izango du prozesu hau hutsik uzteko, baldin eta hautagaitza bakar batek ere ez baditu gutxienerako 50 puntuak gainditzen, balioeste- eta haztatze-irizpideetan ezarritakoari jarraikiz.

#### 4.2.5. Balioeste- eta haztatze-epea

Proposamenak balioesteko epea hogeita hamar (30) egun balioduneko izango da hautagaitzak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita.

#### 4.2.6. Hautagaia hautatzea

Balioespen- eta hautaketa-fasea amaitzeko, txosten tekniko bat egingo du FEIk, eta txosten horretan (aurrerantzean “**balioespen-txostena**”) adieraziko du zein hautagaik lortu duen, gutxienerako atalaseak gaindituta, puntuaziorik onena, eta huraxe izango da hautatua.

Balioespen-txostena FEIren administrazio-kontseilura igorriko da, han eztabaidatu dezaten eta, hala badagokio, onar dezaten (aurrerantzean, “**hautatze-akordioa**”). Hautatze-akordioa FEIren webgunean argitaratuko da.

Bai hautatutako hautagaiari, bai gainerako hautagaiei –onarpen-fasea eta gutxienerako atalaseak gainditu dituzten heinean– hautatze-akordioa jakinaraziko zaie, egoki den moduan, akordioa hartu eta hurrengo hamabost (15) egun baliodunen barruan. FEIk eskubidea izango du erabakitzeak hautatuak izan ez direnei jakinarazpenean zer xehetasun emango zaizkien eta zer formatutan jakinaraziko zaien.

FEIk ez die hautagaiei prozesuari buruzko inolako barne-informaziorik emango, eta, bereziki, ez die informaziorik emango hautagai bakoitzak lortutako puntuazioei buruz edo jasotako eskaintzen balioespenari buruzko barne-dokumentuei buruz.

### 4.3. FORMALIZAZIO-FASEAK

Hautatze-akordioa hartutakoan, bat etorrita oinarriotako 4.2.6 apartatuarekin, sozietate kudeatzaileak eta INDARTUZek ekarpen-konpromisoaren gutuna (edo antzeko agiri bat) egingo dute, hartan jasota uzteko bai bete beharrekoak (jarraian azalduko direnak), bai oinarriotako 6. apartatuan azaldutako konpromisoak. Nolanahi ere, egokitzapenak ere egin ahal izango dira, inguruabar zehatzak aintzat hartzeko edo hautatze-akordioan ezarritako baldintza eta nondik norakoak jasotzeko.

INDARTUZek ekarpena egiteko ezinbesteko baldintza izango da beti akordioaren lehen itxiera gauzatzea urrats hauek gauzatuta:

#### 4.3.1. Funtsa sortu eta abiaraztea. Lehen itxieraren gutxieneko zenbatekoa

Funtsa behin betiko eratuta geratzeko, lehen itxiera gauzatu beharko da, bitartekoa bideragarria dela bermatzen duten konpromiso lotesleak izanda.

Horretarako, sozietate kudeatzaileak dagozkion konpromiso lotesleak hartuta gauzatu beharko du funtsaren lehen itxiera, hots: funtsaren ondare objektiboaren gutxienez % 50, kanpoan utzita INDARTUZen ekarpenaren eta kudeatzaileen zenbatekoak (aurrerantzean “**lehen itxierako gutxieneko zenbatekoa**”). Mugarri hori lortzeko gehieneko epea hamabi (12) hilabetekoa izango da, hautatze-akordioa jakinarazten denetik aurrera.

Funtseko gainerako parte-hartzaileen ekarpen-konpromisoa, berriz, dagozkien konpromiso-gutunak eta beharrezko albo-gutunak («side letters») sinatuta formalizatuko da.

Dena dela, funtsa behin betiko osatu aurretik, funtsa osatzeko dokumentazioa aztertuko du FEIk: funtsa legezkoa den egiaztatuko du eta proposamen teknikoarekin bat datorren ere bai, aurkeztutako interes-adierazpena ere kontuan hartuta.

#### 4.3.2. Ez-betetzea.

Aurreko apartatuetan zehaztutako epeak igarota, sozietate kudeatzaileak ez badu lortu lehen itxierako gutxieneko zenbatekoa, FEIk hautatze-akordioa baliogabetu ahal izango du, automatikoki eta alde bakarrez, eta ondorerik gabe utzi. Sozietate kudeatzaileak, egoera horretan, ez du izango inolako konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik.

Halako kasuetan, FEIk, egoki irizten badio, aurrez ezarritakoaren arabera ordezeko hautagaia hautatzeko prozedura jarri ahal izango du abian.

## 5. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

DOKUMENTAZIOA BI GUTUN-AZAL INDEPENDENTETAN aurkeztu beharko da ("A" GUTUN-AZALA ETA "B" GUTUN-AZALA), gaztelaniaz edo euskaraz (aurrerantzean, "**eskaintza**" esango zaie "A" GUTUN-AZALEKO eta "B" GUTUN-AZALEKO dokumentazioei batera).

Hautagaiak eskaintza aurkezteak zera esan nahiko du ondorio guztietarako: haien aldetik, oinarrietan ezarritakoa osorik eta baldintzarik gabe onartzen dutela. Ez da inolako salbuespenik edo baldintzapenik onartuko; egotekotan, hautagaitza onartua ez izatea eragin dezake.

Gutun-azal bakoitzean, ondorengo azpiapartatuetan zehaztutako dokumentazioa jasoko da.

Gutun-azalak formatu elektronikoa aurkeztuko dira (emailez edo IVFren egoitzara bidali beharreko USB memoria baten bidez). Artxibo digital guztiak egokiro identifikatu eta bereizi beharko dira, oinarrietan eta eranskinean jasotako apartatu eta gehigarrietan ezarritako ordenan.

Hauxe izango da gutun-azalen edukia:

### 5.1. «A» GUTUN-AZALA: ONARPEN-FASEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA.

Itxita aurkeztu beharko da (karpeta elektronikoa), eta "A" GUTUN-AZALARI dagokion dokumentazioa duela adierazi beharko du.

Eskaintza aurkeztu edo jasotakoan, FEIk mezu elektronikoa bidaliko dio hautagaiari, eskaintza jaso dela adierazteko, eta bertan adierazi da:

- I. Hautagaiaren izena.
- II. Eskaintzaren identifikatzaile bakarra (eskaintzaren zk.).

### III. Eskaintzaren aurkezpen-data eta -ordua.

Eskaintza jaso izanaren adierazpena ez da eskaintzaren onarpen-adierazpena; alegia, ez du esan nahi onarpen-fasea gainditu duenik, ezta eskaintzaren ebaluazioa egingo denik ere.

Eskaintzei sarrera-hurrenkeraren arabera egingo zaie kontu.

Hauxe da "A" GUTUN-AZALEAN sartu beharreko dokumentazioa:

1. Hautagaiaren interes-adierazpena: I. eranskina.
2. Eraketa-eskitura edo, honela badagokio, aldaketa-eskitura, behar bezala inskribatuta Merkataritza Erregistroan, betekizun hori beharrezkoa bada aplikatzekoa zaion merkataritza-leggediaren arabera. Ez bada beharrezkoa, dagokion erregistro ofizialean inskribatu beharko da eraketako edo estatutuen aldaketako eskitura edo dokumentua edo sortze-egintza, agiri horretan jasota jarduera-arautzen duten arauak.
3. Interes-adierazpena eta erantzukizunpeko adierazpena sinatzen duen pertsonak ahalorde nahikoa duela egiaztatzen duen ziurtagiria edo eskitura, eta ahalordedunaren nortasun agiri nazionala. Ahalorde horrek merkataritza-erregistroan jasota egon beharko du.
4. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak edo parte-hartzaileari dagokion EBko estatuaren organismo arautzaileak emandako baimen- edo erregistro-ziurtagiria. Parte-hartzaileari dagokion legedian ez bada beharrezkoa organismo arautzaileen baimena edo erregistroa, behar bezala justifikatu beharko da inguruabar hori, legeko iritzi independente baten bidez.
5. Parte-hartzea eragozten duten egoeren gaineko erantzukizunpeko adierazpena: II. eranskina.
6. Onarpen-betekizunak betetzearen gaineko erantzukizunpeko adierazpena: III. eranskina.

7. Ahalorde nahikoa duen legezko ordezkariak sinatutako ziurtagiria, haren bidez egiaztatuta geratzeko Hautagaiaren akziodunen partaidetza-ehunekoa eta titulartasuna.
8. Hautagaiaren urteko kontu ikuskatuak, itxitako azken hiru ekitaldietakoak.
9. Hautagaiaren identifikazio fiskaleko zenbakiaren ziurtagiria.
10. Jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa, posta-helbidea, telefonoa, faxa eta harremanetarako pertsona.
11. Hautagaiaren barne-kontrolako sistemaren eta kontabilitate-sistemaren deskribapena. Bermatu beharko da informazio zehatza, sakona eta fidagarria ematen duela.
12. Inbertsio-taldeko kideen curriculuma (egindako inbertsioetan zer esperientzia duten adierazi beharko du).
13. Hautagaiaren gobernantza-egitura.
14. Inbertsiogileek sinatutako inbertsio-konpromisoko dokumentuak (zer indarraldi duten jasoko dute).
15. Talde kudeatzailearen konpromiso-dokumentua, funtsaren ondare objektiboaren gutxienez % leko ekarpena egingo dela bermatzekoa. Konpromisoa hartzen duten kideek edo Hautagaiak sinatu beharko dute dokumentua.

Aurrekoa gorabehera, FEIk, edozein unetan, dokumentu gehiago aurkezteko agindu ahal izango die eskatzaileei, beharrezkoa den heinean onarpen-betekizunak betetzen direla egiaztatzeko.

## **5.2. «B» GUTUN-AZALA: BALIOESPEN- ETA HAUTAKETA-FASEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA.**

“B” GUTUN-AZALA karpeta elektronikoaren antzeko formatu batean aurkeztuko da, eta hartan jasoko da hautagaien proposamen teknikoa eta ekonomikoa, 4.2 apartatuan zehaztutako edukiarekin.

## 6. ENTITATE KUDEATZAILEREN BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK.

Seigarren apartatu honetan aditzera ematen da zer konpromiso hartu beharko dituen Kudeatzaileak INDARTUZ ekarpena gauzatzeko (aurrerantzean, **“Sozietate Kudeatzailearen Betebeharrak eta Konpromisoak”**). Konpromiso horiek, egin beharreko egokitzapenak eginda, jasota geratuko dira ekarpen-konpromisoaren gutunean edo antzeko dokumentu batean, Kudeatzailearen eta INDARTUZen artean formalizatzea berau.

### 6.1. Funtsaren inbertsio-politiken gaineko betebeharrak eta konpromisoak:

- a. Funtsa kudeatzeko orduan, beren-beregi jarraitzea finantzak ondo kudeatzeko printzipioa, egoki diren zuhurtzia-arauak betez eta behar bezalako likidezia mantenduz. Funtsaren erregelamenduan kudeaketa-baldintzak zehaztuko dira, baita inbertsio-politika ere, bat etorrira finantza-bitartekariak interes-adierazpenean jasotako proposamen teknikoarekin eta negozio-planarekin.
- b. EAEn egin beharreko gutxieneko inbertsioaren konpromisoa: Funtsaren % 75, gutxienez, EAerekin lotura estrategikoa duten enpresetan inbertitzea<sup>3</sup>, oinarriotako 3.f apartatuarekin bat etorrira.
- c. Sektore baztertuak eta lehenetsiak:
  - i. Baztertuta geratuko dira: tabako-produktuak, edari alkoholdun destilatuak, kasinoak, joko eta apustuak, finantza-bitartekaritzako enpresak, seguruak eta banku zerbitzuak (salbuespen dira, inbertsio kolektiboko entitateak, funtsaren xedearekin bat datozen heinean). Era berean, baztertuta geratuko dira ingurumenari kalte nabaria eragiten dieten jarduerak (DNSH printzipioaren arabera) edo giza eskubideak urratzen dituztenak.
  - ii. Beste sektore batzuetan inbertitzeko mugak ezartzen ez badira ere, inbertsioak, lehenespenez, Euskadi Eraldatuz 2030 Planarekin eta Euskadi 2030 Industria Planarekin bat etorrira EAEko sektore estrategikoetara bideratuta dauden enpresetan egingo dira.

- d. Enpresak baztertu egingo dira, baldin eta: i) langilerik ez badute, edo ii) porrot edo kaudimengabezia kolektiboko prozedura batean badaude. Dena dela, arestiko ii) baztertze-puntuari dagokionez, funtsak, salbuespen modura, finantza-eragiketa jakin batzuk hautagarritzat jo ahal izango ditu, eragiketa horien jomuga kaudimengabeziako edo aurregabeziako prozeduretan sartutako enpresak berregituratzea den heinean, betiere baldintza metagarri hauek betetzen badira:
- i. Azken hartzailearen bideragarritasun egiaztatua: Sozietate kudeatzaileak berregituraketa- edo saneamendu-plan bat eduki beharko du, eta plan horrek epe ertain edo luzeko bideragarritasuna egiaztatu beharko du, kapitalaren azken hartzailearen negozio nagusiari begira.
  - ii. Kapital pribatua erakartzea: Aldibereko inbertsiogile pribatu eta kaudimendunen konpromiso sendoek babestu behar dute inbertsioa (FEIz bestelako inbertsiogileak), eta prest egon behar dute egonkortzean eta ekoizpen-eraldaketan parte hartzeko.
  - iii. Araudia betetzea: Eragiketak zorrotz bete behar du kaudimengabezia-egoeretarako araudia (Konkurtsu Legearen testu bategina), eta ez dio kontra egin behar krisi-egoeran dauden enpresei aplikatu beharreko Estatuko laguntzen-araudiari.
- e. Etika- eta zuhurtzia-arrazoiengatik baztertzea (defentsa eta erabilera bikoitza): Konpromisoa hartzen du enpresak hautaezintzat jotzeko, baldin eta haien jarduna zuzenean lotuta badago produktu hauen fabrikazioarekin edo merkataritzarekin: armak, munizioak eta material militarrik, non eta ez dauden Europako Segurtasun Estrategiaren barruan.

## **6.2. Jasangarritasunari lotutako betebeharrak eta konpromisoak, baliabideen erabilera eraginkorra eta ekonomia zirkularra:**

Jasangarritasun-irizpideak aplikatzea (ESG): Inbertsioetan ESG irizpideak (ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-arlokoak) aplikatzeko konpromisoa hartzen du. Besteak beste:

- Berdintasunaren sustapenena, gizarte-eragina eta ingurunearekiko lotura.
- Gardentasuna, enpresa-etika eta araudi-konplitzea.

### **6.3. Kudeaketa- eta merkaturatze-jarduketetarako betebeharrak eta konpromisoak:**

- a. Funtsaren lehen itxiera egitean, beteta edukitzea ondare objektiboaren gutxienez % 50eko konpromisoak (kanpoan utzita INDARTUZ ekarpena), 12 hilabeteko epean, prozesuaren ebazpena jakinarazten denetik.
- b. Enpresa-proiektuak eta azken hartzaileak identifikatzea, hautatzea, haien gaineko eginbideak egitea eta dokumentatzea, sektorean ohiko prozedurekin bat etorrita.
- c. Inbertsiogile pribatuak identifikatzea eta bilatzea, bitartekoa elkarrekin finantzatzeko, azken hartzaileen edo proiektu hautagarrien kapitalean inbertituta.
- d. Dagozkion betebeharrak betetzea, aplikatu beharreko legearen arabera, eta egokiro jardutea, behar den mailako arreta profesionalaz, eraginkortasunaz, gardentasunaz eta arduraz jokotuta, finantza-bitartekoak inplementatzen esperientzia duen entitate profesional batengan espero izatekoa den moduan.
- e. EAEn merkataritza-egitura egokia izatea.
- f. Merkataritzaren ikuspegitik arrazoizkoak diren inbertsioak identifikatzea, arriskua dibertsifikatzeko politika egokia ekar dezaten, haren bidez bideragarritasun ekonomikoa lortu ahal izateko baita eskala eraginkorra ere inbertsio-zorren tamainari eta lurralde-eremuari begira.
- g. Bermatzea ezen, inbertsioaren hartzaileak hautatzeko orduan, kontuan hartzen direla funtsaren izaera eta finantzatu beharreko enpresek eduki dezaketen bideragarritasun ekonomikoa. Hautaketa-egiteko, prozesu garden bat baliatuko da; arrazoi objektiboen bidez justifikatuko da, eta ez du interes-gatazkarik eragingo.

- h. Aplikatu beharreko estandarrak eta legedia betetzea: kapital-zuriketaren prebentzioa, terrorismoaren eta haren finantzaketaren kontrako borroka eta zerga-iruzurraren kontrako borroka.
- i. Informazio zehatza jasotzea azken hartzaileei zuzenduta (enpresak), haren jabetzako webgunean, zehaztapen hauek emateko: nola eta non eskatu finantzaketa, ea bitartekoa erabilgarri dagoen, enpresek zer betekizun bete behar dituzten onartuak eta hautatuak izateko, zer finantza-produktu dauden erabilgarri eta zein diren kontaktu-puntuak. Era berean, webgunean, FEIren eta Eusko Jaurlaritzaren logotipoa jarriko da atari ofizialerako esteka eta guzti, ikusteko moduko tokian.

#### **6.4. Informazio- eta gardentasun-betebeharrak/konpromisoak:**

- a. Urtero diruzaintza-plana entregatzea, barnean direla inbertsio-aldirako zenbatespenak.
- b. Sei hilean behin, funtsari buruzko txosten bat igortzea FEIra, txosten horretan IV. eranskinean ezarritako edukia jasota.
- c. Urtero txosten bat bidaltzea funtsaren auditoretzari eta urteko kontuei buruz, gehienez ere 150 egun naturaleko epean, txostenari dagokion ekitaldia ixten den egunetik aurrera zenbatuta.

#### **6.5. Araudia betetzearen gaineko betebeharrak/konpromisoak**

- a. Aplikatzekoak zaizkion lege eta arau guztiak erabat betetzea – nazionalak izan, autonomikoak izan zein Europako Erkidegokoak –, arauok ez betetzeak hirugarren batzuen interesei kalte egin diezaiekeen heinean, bereziki INDARTUZ, FEI, EAE eta EBren interesei.
- b. Funtsaren erregelamenduak ezarriko du ezen, sozietate kudeatzailea ordeztuz gero, funtsa kudeatzeaz arduratuko den entitateak bete beharrekoak dituela deialdi honetan ezarritako betekizunak eta eskakizunak.
- c. Hautatze-akordiotik gehienez hamabi (12) hilabeteko epean baldintza hauek betetzea:

- i. Lege- eta arau-gaikuntza: Sozietate kudeatzaileak behar diren izapide guztiak beteko ditu inbertsio-bitartekoa osatzeko eta eskumeneko agintaritza-arautzailean (Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalen edo parekoren batean) inskribatzeko. Horren barruan, behin betiko onartu beharko dira kudeaketa-erregelamendua edo funtsaren estatutuak.
- ii. FEIk dokumentazioaren eta betekizunen gainean egindako azterketa aldeko emaitzarekin amaitzea.
- iii. Izenpetze-akordioak formalizatzea inbertsiogile pribatuekin.

#### **6.6. Gobernantza-egituraren gaineko betebeharrak eta konpromisoak**

Sozietate kudeatzaileak bermatu beharko du FEIk edo INDARTUZek bitartekoaren gobernantza-egituran parte hartzen dutela, aingura-inbertsiogile diren aldetik. FEIk hitz eta boto eskubidea izango du ikuskatze-batzordean edo haren pareko egituran (Advisory Committee), eta aukera izango du boto-eskubiderik gabeko behatzaile bat eskatzeko bertan, haren bidez bete dadin funtsaren kudeaketan izan daitezkeen interes-gatazken zaintzarako, ikuskatze estrategikorako eta kontrolerako duen ahalmena.

#### **6.7. Lanarekin, gizarte-segurantzarekin eta lan-segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako betebeharrak eta konpromisoak**

Kudeatzailea behartuta egongo da indarrean dauden xedapen guztiak betetzeko, lan-arloari, Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasun eta osasunari dagokienez; hala, dagokion lan-ordenantzaren eta hitzarmen kolektiboaren xedapenak beteko ditu, laneko nahitaezko segurtasun- eta higiene-neurri guztiak hartuko ditu eta indarrean dagoen araudian laneko arriskuen prebentzioaren arloan ezarritako betebeharrak beteko ditu.

#### **6.8. Kontratista eta hornitzaileekiko betebeharrak betetzeko betekizunak eta konpromisoak**

Sozietate kudeatzaileak bere kontratista edo hornitzaile guztiekiko betebeharrak bete beharko ditu.

## **6.9. Ingurumen-arloko betebeharrak eta konpromisoak**

Sozietate kudeatzaileak une oro errespetatu beharko ditu arau-maila guztietako legedia (Europar Erkidegokoa, estatukoa, autonomia-erkidegokoa eta tokian tokikoa): hala deialdi honen helburu den funtzioen hasieran indarrean dagoen legedia, nola bere funtzioak bete ahala promulgatuko dena, halakorik bada. Horrekin batera, baliabideen erabilera eraginkorragoa egingo du, ingurumenean ahalik eta inpaktu txikiena eragiteko.

## **6.10. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko, gizarteratze eta laneratzearen arloko eta lehia babesteko araudiaren arloko betebeharrak eta konpromisoak**

Sozietate kudeatzaileak hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatuko du haren dokumentu guztietan, egokiro betetzeko 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena. Era berean, sozietate kudeatzaileak lege ezarritako betekizunak beteko ditu, desgaitasuna duten pertsonen eta pertsona horiek gizarte-inklusiorako duten eskubideei dagokienez, bai, halaber, lehia babesteari dagokionez.

## **7. EZ-BETETZEAK ETA ZIGORRAK**

### **7.1. Sozietate kudeatzaileak EAEn gutxieneko inbertsioa egiteko konpromisoaren gainean egindako ez-betetzeak eta horren ondoriozko zigorrak**

Funtsaren inbertsio-aldia igarota, sozietate kudeatzaileak ez badu bete EAEn gutxieneko inbertsioa egiteko konpromisoa, kalte-ordaina eman beharko dio INDARTUzi; hala, partzialki itzuliko dio funtsaren bizialdian guztira kobratutako kudeaketa-komisioa, araubide honen arabera:

<b>Eskualdeko inbertsioaren ehunekoa</b>	<b>FEIri itzultzekoa zaion kudeaketa-komisioaren ehunekoa</b>
% 70 eta % 75 bitartean	kobratutako kudeaketa-komisioaren % 25.
% 60 eta % 70 bitartean	kobratutako kudeaketa-komisioaren % 50.
% 60tik behera	kobratutako kudeaketa-komisioaren % 75.

## **7.2. Sozietate kudeatzaileak ez-betetzea kapitalak zuritzea prebenitzeko araudia**

Kapitalak zuritzea edo terrorismoa finantzatzea prebenitzeko araudia betetzen ez bada, INDARTUZek ez du ordainketa gehiago egingo harik eta egoera zuzendu arte, berandutzerik gabe.

## **7.3. Sozietate kudeatzaileak hartutako konpromiso eta betebeharrak ez betetzea**

Sozietate kudeatzaileak hartutako konpromiso eta betebeharrak betetzen ez baditu, INDARTUZek nahieran hartu ahal izango ditu neurri hauetako edozein:

- a. Ez-betetzea hasi zenetik eta zuzendu arte (zuzentzeko modukoa bada) FEIri dagozkion komisioen % 100eko kalte-ordaina jasotzea.
- b. Ez egitea bestelako ordainketarik, harik eta dena delako betebeharra edo konpromisoa guztiz bete arte. Era berean, halako kasuetan, INDARTUzi ez zaio aplikatuko inolako interesik, arrazoi horrengatik atzeratzeagatik zigor modura, eta ez da joko berandutzean parte hartu duenik.

## **8. PUBLIZITATEA ETA GARDENTASUNA**

Zabalkunde egokia emate aldera, bat etorrita Finantzen Euskal Institutua Erregulatzen duen abenduaren 21eko 19/2023 Legeak (aurrerantzean “**FEIren Legea**”) 10. artikuluan eta harekin bat datozenetan ezarritakoarekin, hautaketa-prozesu honen deialdia FEIren webgune ofizialean argitaratuko da (<https://www.ivf-fei.euskadi.eus>), baita legez derrigorrezkoak eta egokiak diren gainerako bitartekoetan ere. FEIren webgune ofizialean, prozesuaren dokumentazio guztia eta behar diren argibideak argitaratuko dira.

Interesdunek edozein unetan eskatu ahal izango dituzte hautaketa-prozesuari argibideak, hautagaitzak aurkezteko epea amaitu arte. Eskabide horietan, interesduna nor den eta galdera edo azalpena noren ordezkari modura egiten duen adierazi beharko da. Eskabideak gaztelaniaz edo euskaraz aurkeztu beharko dira helbide elektronikoa honetan: [indartuz@ivf-fei.eus](mailto:indartuz@ivf-fei.eus).

Interesdunek egindako azalpen-eskaerak ez dute banakako erantzunik jasoko. Azalpen-eskaera guztietako erantzunak FEIren webgunean argitaratuko dira arian-arian.

Hautagaitzak aurkezteko epea amaitu aurretik FEIk hautemanetz gero deialdiaren testuan zehaztugabetasun, huts edo akatsen bat dagoela, zuzendu egingo du, eta horren berri emango du webgunearen bidez edo zuzenketaren berri jasotzeko aproposa den beste edozein bitartekoren bidez.

## 9. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.

### 9.1. Konfidentzialtasuna

FEIk konpromisoa hartuko du hirugarren batzuei ez zabaltzeko hautagaiek emandako informazioa informazio hori argi eta garbi konfidentzialtzat jo bada, haiek aurrez idatziz eta berriaz baimendu ezean. Salbuespen izango dira legez derrigorrezkoak diren egoerak. Konfidentzialak izango dira, zehazki, sekretu komertzialak edo teknikoak eta jasotako eskaintzen alderdi konfidentzialak. Hautagaiek, bada, argi, berriaz eta zalantzarik gabe adierazi beharko dute eskaintzan aurkeztutako dokumentazio guztitik zer dokumentazio jo behar den konfidentzialtzat.

### 9.2. Datu pertsonalen tratamendua

FEIk hautaketa-prozesuaren barruan eskura izango dituen izaera pertsonaleko datuak direla eta, tratamendu-jarduera honetan jaso eta tratatuko dira: Finantzaketa-kontratuak.

- **Arduraduna:** Finantzen Euskal Institutua
- **Helburua:** Finantzaketa-kontratuak kudeatzea. Pertsona juridikoen eta pertsona fisikoen ordezkarien datuak.
- **Legitimazioa:** Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

- **Hartzaileak:**
  - Bankuak, kutzak eta nekazaritza-kutzak
  - Notarioak, abokatuak eta prokuradoreak
  - Beste finantza-entitate batzuk
  - Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk
- **Eskubideak:** Eskubidea duzu datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko, baita beste eskubide batzuk ere, informazio osagarrian jasotzen direnak.
- **Informazio gehigarria:** Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsultatu nahi izanez gero, jo gure web-orri honetara:  
<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepe/eu/gardentasuna/066200-capa2-eu.shtml>  
**Araudia:** Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eurlex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=celex:32016R0679>) ) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2018-16673>).

## 10. LEGE-ARAU BIDEA

Prozesu honi ez dagokio 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena.

Prozesu hau zuzenbide pribatuak arautzen du, eta FEIk eta INDARTUZek hirugarren batzuekin ezarritako harremanen esparruari dagokio eta esparru horretan garatzen da, bat etorrita FEIren Legearen 1.3 artikuluan ezarritakoarekin. Hala, azalpen orokor gisa eta xehetasunetan sartu gabe, (i) bai oinarriak, bai (ii) prozesuaren ondorioz gerora sortzen diren negozio juridikoak, halakorik bada, zuzenbide pribatuaren arabera arautuko dira.

Hautagaiak inbertsio-proposamen bat eginez gero, horrek esan nahi du, 5. klausulan adierazitakoaren arabera, oinarri hauek onartzen dituela, eta inolaz ere ez du sortuko haren aldeko eskubiderik. Hala, ezingo da inolaz ere ulertu oinarri hauek edo prozesuak FEIren edo INDARTUZen inbertsio-konpromisoa dakartenik.

Oinarriok argitaratzeak ez du inolaz ere esan nahi INDARTUZek edo FEIk konpromisorik dutenik hautagaien alde edo funtsaren alde ekarpenik egiteko.

Aplikatzekoa izanez gero, haren ondoriozko prozesua eta negozio juridikoak merkatuko baldintzen pean egongo dira, eta une oro bete beharrekoa izango du(te) Estatuko laguntzen arloan European ezarritako araudia.

FEIk ahalmena edukiko du unean-unean egokitzat jotzen dituen irizpide subjektiboak aplikatzeko, prozesu honen edukia eta dokumentazioa interpretatze eta balioeste aldera.

## I. eranskina

### Interes-adierazpena

Zuzendari nagusiarentzat,  
Finantzen Euskal Institutua  
Bilboko Burtsaren eraikina – 3. solairua  
48001 – Bilbao

Jaun agurgarria:

Idazki honen bidez, gure interes-adierazpena bidaltzen dizugu, \_\_\_\_\_(r)en izenean (“Hautagaia”), hartara erantzuna emateko Finantzen Euskal Institutuak (FEI) arrisku-kapitaleko entitateak kudeatzeko sozietate bat hautatzeko eta Euskadiren ekoizpen-eraldaketarako zor-funtsa eratzeko eta kudeatzeko egindako deialdiari.

Beheko sinatzaileak, Hautagaia ordezkatzeko behar bezala baimenduta dagoela, interes-adierazpen hau sinatuta, aditzera ematen du interes-adierazpena honetan jasotako informazioak eta deialdiari lotuta aurkezten diren gainerako agiriekin behar diren osagai guztiak dituztela eta osagai horiek zuzenak direla.

Era berean, sinatzaileak aditzera ematen du Hautagaia ez dagoela deialdi honetako II. eranskinean jasotako egoeretako ezeinetan –egoerok deialdian parte hartu ahal izatea eragozten dutenez gero–, eta konpromisoa hartzen du FEIk eskatu aurretik egoera hori justifikatzeko aurkeztu beharreko agiri guztiak ematera.

Azkenik, sinatzaileak adierazten du Interesa-adierazpena bidaltzeak, ondorio guztietarako, Oinarrietan eta horien parte diren Eranskinetan ezarritakoa osorik eta baldintzarik gabe onartzen duela, inolako erreserbarik edo baldintzapenik gabe; halakorik balego, Hautagaitza onartua ez izatea eragin lezake. Adeitasunez,

Entitatearen sinadura eta zigilua:

Izena eta kargua:

Entitatearen izena:

Lekua eta eguna:

## Hautagaiaren identifikazioa

### 1.1. Hautagaiaren identifikazioa

<b>Hautagaiaren izena</b>	
<b>Harremanetarako datuak (helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa)</b>	
<b>Forma juridikoa</b>	
<b>IFK zk.</b>	

### 1.2. Hautagaiaren izenean interes-adierazpena aurkezteko baimena duena pertsona

<b>Trataera:</b>	<b><u>jn./and.</u></b>
<b>Izen-abizenak:</b>	
<b>Kargua:</b>	
<b>Harremanetarako datuak (helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa):</b>	

### 1.3. Prozeduraren beharretarako harremanetako pertsona (beste bat bada)

<b>Trataera:</b>	<b><u>jn./and.</u></b>
<b>Izen-abizenak:</b>	
<b>Kargua:</b>	
<b>Harremanetarako datuak (helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa):</b>	

## II. eranskina

### Parte-hartzea eragozten duten egoeren gaineko erantzukizunpeko adierazpena

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak (NAN zk.:\_\_\_\_\_),  
\_\_\_\_\_ (IFZ zk.:\_\_\_\_\_) ordezkatzen ari dela, agiri bidez hala egiaztatuta eta bat etorrita Euskadiren ekoizpen-eraldaketarako zor-funtsa eratzeko eta kudeatzeko sozietate bat hautatzeko prozeduran zehaztutakoarekin,

ADITZERA EMATEN DU, ordezkatzen duen entitatea dela-eta:

- a) Ez dago krisi-egoeran eta/edo ez dagoela sartuta hauetako inolako prozeduratan: likidazioa, interbentzio judiziala edo hartzekodunen konkurtsoa, jarduera-uztea edo izaera bereko beste edozein egoera, indarreko legedia nazionalean halakoa den prozedura batek eragindakoa.
- b) Ez Hautagaiak, ez hura ordezkatzeko, kontrolatzeko edo haren erabakiak hartzeko ahalak dituzten pertsonak ez dutela kondenarik jaso gauza epaituaren indarra duen epai irmoz, arrazoi hauetako batengatik edo gehiagorengatik:
  - Etika profesionalari eragiten dioten delituengatik.
  - Iruzur, ustelkeria, antolakunde delitugile bateko partaidetza, kapital-zuriketa edo legez kanpoko beste edozein jarduerarengatik, Europar Batasunaren finantza-interesei kalte egiten dien heinean.
  - Ogasun Publikoaren aurkako delituengatik.
  - Langileen aurkako delituengatik, bidegabeko eralgitzeengatik eta antzeko jardunbideengatik.
  - Ingurumenaren babesaren aurkako delituengatik.
  - Lanbide, ofizio, industria edo merkataritzako jardunen gaineko desgaikuntza bereziko zigorrerengatik.

Parte-hartzea eragozten duten egoera horiek pertsona juridikoei ere eragingo diete, baldin eta, haien administratzaileak edo ordezkeriak egoera horietako batean badaude, pertsona juridiko horien izenean edo haien onurarako egindako jardunengatik, edo delituaren subjektu aktibo izateko behar diren baldintzak, ezaugarriak edo harremanak biltzen dituzten egoeran badaude.

- c) Ez duela arau-hauste astunik egin edo arrazoi horrengatik zehapenik jaso, arlo hauetan: merkatu-diziplina, arlo profesionala eta desgaitasuna duten pertsonak laneratzea eta aukera-berdintasuna bermatzea eta ez diskriminatzea. Orobat, ez duela arau-hauste oso astunik egin arlo sozialean (barnean direla laneko arriskuen prebentzioko arau-haustek).
- d) Ez dago zehapen-prozeduretan sartuta, eta ez du antzekoa edo parekoa den hautaketa-prozesuetan egindako jardun desegokien aurrekariarik.
- e) Ez dago interes-gatazka egoeran, ez orain ez potentzialki, hautaketa-prozesu honen sustatzaileekin (FEI) edo Funtzaren helburuekin, aplikatu beharreko araudiaren arabera; edo, halakorik egonez gero, Funtsa eratu baino lehen gatazka hori zuzentzeko konpromisoa hartzen du.
- f) Ordainduta dituela indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- g) Hautaketa-prozesua berean eskatutako informazioa emateko behar bezalako ahalmena duela.
- h) Haren ustez, betetzen dituela hautaketa-prozesua honen onarpen-betekizunak.
- i) Betetzen dituela lehiaren arloan Europako Erkidegoan eta Estatuan emandako arau eta politika guztiak, eta erabateko asmoa eta gogoia duela guztiz gauzatzeko finantza-bitarteko honen bidez sortutako finantza-produktuek Estatuko laguntzen arloan aplikatu beharreko arauak betetzen dituztela bermatzeko konpromisoa.
- j) Betetzen dituela ingurumena babesteko eta garapen jasangarria sustatzeko arloetan Erkidegoan eta Estatuan emandako arau eta politika guztiak.
- k) Betetzen dituela genero-berdintasunaren, diskriminazio-ezaren eta gizarte- eta lan-integrazioaren arloan Erkidegoan eta Estatuan emandako arau eta politika guztiak.
- l) Borondate eta gogo osoa duela finantza-bitarteko honi aplikatu behar zaizkion informazio- eta publizitate-xedapenak betetzeko.
- m) Hautagaiak eta haren ordezkari modura behar bezala baimenduta sinatzen duenak konpromisoa hartzen dutela aurreko guztiaren frogak aurkezteko, FEIk eskatuz gero.

Eta hori guztia jasota geratze aldera, .....(e)k parte har dezan Euskadiren ekoizpen-eraldaketarako zor-funtsa eratzeko eta kudeatzeko sozietate bat hautatzeko prozeduran, adierazpen hau izenpetzen dut, leku honetan: ..... eta data honetan: .....

Izpta.:\_\_\_\_\_

### III. eranskina

#### Ezinbesteko gutxienerako betekizunak betetzearen gaineko erantzukizunpeko adierazpena

----- jaunak/andreak (NAN zk.:-----),  
 -----(r)en (IFK zk.:-----) ordezkari modura, agiri bidez hala egiaztatuta,

ADIERAZTEN DU ezen, Hautagaiak egokiro betetzen dituela gutxienerako Onarpen-betekizunak:

1. ----- sozietatea sozietate kudeatzaile modura eratuta eta erregistratuta dago, Espainian edo EBko beste estaturen batean, Espainian arrisku-kapitaleko entitateak merkaturatzeko baimenarekin, azaroaren 12ko 22/2014 Legearen arabera.
2. Hautagaiak egokiro betetzen ditu kaudimenaren arloan ezarritako eskakizunak, bai Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ezarritakoak (edo ELGaren beste organo arautzaile batek, aplikatzekoa den legedian hala eskatzen bada), bai aplikatzekoa den araudiak ezarritakoak. Gainera, talde kudeatzaileak edo sozietate kudeatzaileak ez dute zehapen-espediterik irekita.
3. Hautagaiak gutxienez bost (5) urteko esperientzia izango du funtsen kudeaketan; bestela, funtsen kudeaketan 10 urtetik gorako esperientzia egiaztatzen duen talde bat izango du, pareko tamaina eta konplexutasuna duten inbertsio-proiektuetan.

Izena	Esperientzia	Data	Antolakundea

4. Gutxienez, Kudeaketa Taldeko bi (2) kidek, bazkide edo zuzendari kategoriakoek, esperientzia nabargarria izango dute kotizatutako zein kotizatu gabeko sozietateei maileguak – bermatuak edo ez – ematen, gutxienez bost (5) urtekoa.. Horrez gain, kudeaketa-taldeko kideetako batek gutxienez egiaztatuta dauka urtebetetik (1) gorako esperientzia Euskadin egindako inbertsioetan.

Izena	Funtsa/Entitatea	Esperientzia (kargua, hasierako eta amaierako data)	Eginkizunak

5. Talde kudeatzaileak edo Hautagaiak konpromisoa hartuta daukate funtsak hartzen duen tamainaren gutxienez % leko ekarpena egiteko. Konpromisoak baliozkoak izateko, honako hauen sinadura beharko da ezinbestean: talde kudeatzailea edo Hautagaia, talde kudeatzailea osatzen duten pertsonak edo %100 haiek osatutako partaidetzapeko bitartekoa.
6. Kudeaketa arruntagatik kudeaketa-sozietateak kobratuko duen komisioa ez da izango inbertsio-aldian konprometitutako kapitalaren urteko % 1,5 baino gehiago, ezta desinbertsio-aldiko kapital inbertitu biziaren urteko % 1,5 baino gehiago ere.
7. Hautagaiak gobernu-egitura egokia dauka finantza-bitartekoa gauzatzeko eta inbertsioaren eta arrisku-dibertsifikazioaren arloko erabakien gardentasuna bermatzeko. Jadanik beste funts edo bitartekoak kudeatuz gero, hautagaiak Funtsa modu eraginkor eta bereizian kudeatzeko beharrezkoak diren antolaketa-egitura eta baliabideak ziurtatuko ditu, funtzioak bikoiztea eta dauden funtsekin baliabide-gatazkak sortzea saihestuz.
8. Hautagaiak adierazten du bere kontrol eraginkorra (Kontseiluko botoen gehiengoa eta/edo kontrol operatiboa) akziodun pribatuei dagokiela, inbertsio-erabakiak hartzeko autonomia eta Funtsetik kanpoko interes publikoen esku-sartzerik eza bermatuz.
9. Eskatzaileak une oro aplikatzekoa zaión araudi guztia betetzeko konpromisoa hartzen du: kapital-zuriketa prebenitzeari buruzko araudia, terrorismoaren eta haren finantzaketaren kontrako borrokari buruzkoa eta zerga-iruzurrari buruzkoa.

10. Hautagaiak berretsi egiten du finantza-tresna honi aplikagarri zaizkion informazioari eta publizitateari buruzko xedapen guztiak errespetatzeko borondatea eta prestasuna.
  
11. Hautagaiak hautaketa-prozesu honetan aurkezten duen dokumentazioa guztia egiazkoa eta benetakoa da.
  
12. Hautagaiak eta haren ordezkari modura behar bezala baimenduta sinatzen duenak konpromisoa hartzen dute aurreko guztiaren frogak aurkezteko, FEIk eskatuz gero.

Eta \_\_\_\_\_(e)k hautaketa-prozedura honetan parte hartze aldera, adierazpen hau sinatzen dut \_\_\_\_\_(e)n 2026ko \_\_\_\_\_(e)(a)n.

Izpta.: \_\_\_\_\_

## IV. eranskina

### Seihileko txostenetan sozietate kudeatzaileak eman beharreko gutxieneko informazioa

Jarraian, Euskadiren ekoizpen-eraldaketarako zor-funtsa kudeatzeko hautatutako sozietate kudeatzaileak sei hilean behin aurkeztu beharreko gutxieneko informazioa zehazten da:

#### - Finantza-eraginaren neurketak

Balioespen- eta errentagarritasun-txostenak aurkeztu beharko dira, eta, gutxienez, funtsezko adierazle hauek jaso beharko dituzte:

- Errentagarritasun gordina eta garbia (IBT): Itzulkinaren barne-tasa (IBT), gordina eta garbia (kudeaketa-komisioen eta pizgarrien aurretik eta ostean), urtez urte eta inbertsioz inbertsio xehakaturata.
- Kapitalaren multiploak (MoIC eta DPI): Inbertitutako kapitalaren multiploa (Multiple on Invested Capital – MoIC) eta banatutako kapitalaren multiploa (Distributions to Paid-in – DPI).
- Zorroaren balioespena: Zorroaren seihileko balioespenaren (NAV) xehetasuna, IPEV/EVCA metodologia erabilita, eta aurreko aldiarekiko eboluzioa.
- Lehentasunezko tasa betetzea: Carried Interest-aren sortzapenaren gaineko txosten zehatza.

#### - Eragin estrategikoaren eta ESG irizpideen neurketak

Helburu estrategiko hauek betetzen direla egiaztatzen duten eragin-neurketak eskatuko dira zehazki:

- EAEko ekonomiara bideratuko funtsak: Euskadiko enpresetan edo Euskadiren esparrurako proiektuetan egindako finantzaketa/inbertsioen zenbatekoa eurotan.
- Atzerriko inbertsioaren erakarpina eta eragin biderkatzailea: Kudeatzen diren bitartekoak/funtsak, inbertsiogile publikoak eta pribatuak bereizita, baita haien jatorria ere.
- Enpresa onuradunak: Finantzaketa/inbertsioa jaso duten enpresen kopurua, haien tamaina eta finantzatutako proiektuen tipologia bereizita.
- Enpleguaren hazkundera eta kalitatea: Enpresa onuradunetako enplegatuen kopurua eta hazkunde garbia, aldagai hauen arabera sailkatuta: adina, kontratu mota, kategoria, jatorria, soldata-arrakalaren aldakuntza...
- Enpresaren finkatze eta hazkunde maila: Inbertsioa jaso duten enpresen xehetasuna.

Barnean hartuko ditu azken urteko fakturazioa, EBITDA, irabazi garbia, ondare garbia eta finantza-zor garbia (FZG), azken urtekoak, eta aurreko urtearekiko aldakuntza.

- Kanporako irekiera: Esportazioen fakturazioen zenbatekoa eta guztiko fakturazioan duten pisu erlatiboa, eta aurreko urtearekiko aldakuntza.
- Lehiakortasunaren hobekuntza: kostu operatiboen eta sarreren aldakuntza, merkatu-kuota, patenteen kopurua, merkatu berriak eta abar.
- Digitalizazioan eta trantsizio ekologikoan egindako inbertsioa:
  - Digitalizazioan egindako inbertsioa: Arlo hauetan egindako inbertsioen zenbatekoak: teknologia modernizatzea, prozesuak automatizatzea, digitazio-soluzioak edo 4.0 industriako soluzioak sartzea eta eraginkortasun operatiboa hobetzea.
  - Trantsizio ekologikoan egindako inbertsioa: Ingurumenaren arloko inbertsioen zenbatekoa, zehazki ingurumen-inpaktua eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztera bideratutakoak, barnean hartuta eraginkortasun energetikoa, deskarbonizazioa, baliabideen kudeaketa jasangarria, ekonomia zirkularra edo energia berriztagarriak.
- Jasangarritasuna: Finantzaketaz bestelako informazioa, ESG arriskuen ebaluazioa eta arriskuok murriztera bideratutako jarduketan xehetasunak.
- Gobernantza eta profesionalizazioa: Gobernu onaren politikak hartzeari buruzko txostena, barnean hartuta partaidetzapeko enpresaren administrazio-organotako kideen arteko genero-parekotasuna eta kide independenteen ehunekoa.

### **Komunikazio formalerako betebeharrak**

Aurrekoez gain, txosten bat bidaliko du urtero, arrisku-kapitaleko entitatearen auditoretzari eta urteko kontuei buruz, gehienez ere 150 egun naturaleko epean, txostenari dagokion ekitaldia ixten den egunetik aurrera zenbatuta.